




BARREN

TOXIKOM



**Kulturgune berria,
zabalik**

2020ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA



■ **GAIA:** **KIROLA ELGOIBARREN**

■ **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

■ **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

■ **LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:

a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira:

"Elgoibarko egutegia 2020" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta argazkiaren izenburua, lekua eta data). Helbidea: Aita Agirre (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua.

b) Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita. Hemen ere aurreko datu guztiak azaldu beharko dira. Parte-hartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua dagoela jakinarazteko.

■ Argazkiak aurkezteko epea: **2019ko urriaren 9ra arte.**



IKASTOLAN, DENOK GARA GU



2019an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik,
irailaren 16tik 27ra, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat

elgoibar ikastola

943 744441

www.elgoibarikastola.eus

Ordutegi zabala: 7:30-19:30
Jai-zubietan eta oporretan irekita



ORIENTAZIOA FAMILIAN

☉ IRAILAK 28, ZAPATUA

☉ 09:30ean IDOTORBEN

☉ 4€ PERTSONAKO
(bazkideek 3€)

☉ IZEN EMATEA:

www.elgoibarkoizarra.eus

atarian edo Morkaikoren nahiz
Elgoibarko Izarraren bulegoetan
Irailaren 25era arte



Antolatzaileak:

Babeslea:

Laguntzaileak:





Arroztasunetik gertutasunera

raldiak. Bigarren aldiari arraroa egin zitzaidan esaldi bera entzutea, eta hirugarren bider entzundakoan hasi nintzen ideia horren inguruan hausnartzen.

Posible da euskara eta japonierari antzekotasun fonetikoren bat hartzea, eta guretzat segur aski ez da batere erraza izango berdintasun horiek antzematea. Baina ez da hori arazoa. Kontua da esaldia aztertuz gero ohar-tuko garela euskara dela japoniera dirudien hizkuntza, eta ez alderantziz. Hau da, euskara japoniera baino hiz-

kuntza arrotzago gisa ikusten dutela nire hiru lagun katalanek, euskarak (hizkuntza ezezagunak) eurentzat ezagunagoa den japoniera ekartzen baitie gogora.

Euskal Herriaren eta Herrialde Katalanen arteko gertutasuna eta harremana kontuan hartuta, ez al da triste samarra hizkuntzari dagokionean horren arrotz ikustea euskara? Nola da posible japoniera gertuagoko hizkuntza gisa sentiitzea? Japoniera gehiagotan entzun al dute euskara baino? Ala hizkuntzen arteko botere harremanen emaitza izango ote da?

Aiba! Euskarak japoniera dirudi! Azken hilabeteetan hiru aldiz tokatu zait komentario hori entzutea; hiru pertsona ezberdinengandik eta une ezberdinetan, Bartzelonan hirurak. Euskaldunen batekin euskaraz aritu ostean entzun nuen lehenengoz, eta grazia egin zidan katalanaren ate-

“Euskal Herriaren eta Herrialde Katalanen arteko gertutasuna eta harremana kontuan hartuta, ez al da triste samarra hizkuntzari dagokionean horren arrotz ikustea euskara?”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UDALA
AJUNTAMENDO

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO
2001



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Elgoibarren Euskaraldia ariketako hamaikakoa aurkeztu zuten eguneko argazkia.

▶ Euskaraldiak irabazia laga du

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketaren gaineko ikerketa aurkeztu du Soziolinguistika Klusterrak. Ariketan 225.000 lagunek parte hartu zuten, eta horietako 18.400 lagunek emandako erantzunekin eta beste 450 lagunekin egindako ikerketa kualitatiboaren

emaitzekin osatu dituzte ondorio nagusiak. Eta lehen emaitza argia da: Euskaraldiak iraun zuen 11 egunetan euskararen erabilerak gora egin zuen, hogei puntu, baina asteak aurrera egin ahala, txikitu egin zen berriro. Hala ere, eta datuei erreparatu gero, irabazia utzi du ariketa hark: Euskaraldiaren aurretik, euskarak %57ko presentzia zuen egunerokoan; amaitu orduko, %73koa; eta hiru hilen ondoren, %60koa.

Aldaketa handiena euskararekin lotura txikiagoa duten hiztunetan, erdararako joera dutenetan edota inguru erdalduna dutenetan eman da. Euskaraz egiteko gaitasun mugatua izan arren, ahobizi izatea aukeratu zutenetan erabilera 14 puntu handiagoa zen ariketa hasi eta hiru hilera, eta 8 puntu handiagoa belarriprest rola aukeratu zutenen artean. Euskaraz ondo hitz egiteko gai direnen artean, baina, irabazia txikiagoa izan zen, eta badu bere logika gainera: euskaraz egiteko gai direnen erabilera handiagoa izanda, hobetzeko tartea ere txikiagoa delako. Inguruarekin ere badu loturarik. Izan ere, zenbat eta euskaldun gutxiago izan herrian, irabazia handiagoa izan zen 11 egun horietan. Hori bai, Euskaraldiko egunetan igoera handia izan arren, jaitsiera ere handiagoa izan da herri horietan, eta hori trinkotasunarekin lotu dute: hau da, euskaldun gutxiagorekin euskaraz egiteko aukera ere txikiagoa den logikarekin.

Uste baino zailagoa

Euskaraldiak eskatutakoa betetzea uste baino zailagoa egin zaie parte hartzaileei. Lehenengo berba euskaraz egitea uste baino gehiago kosta zaiela aitortu dute askok, baina, hala ere, eta zailtasuna ikusi arren, lehenengo hitza euskaraz egiteko joera handitu egin da. Era berean, elkarrizketa elebidunei eustea ere kosta egin zaie parte hartzaileei. Hitz egitean erdara-

“Euskaraldia hasi aurretik euskarak %57ko presentzia zuen egunerokoan; amaitu orduko, %73koa, eta hiru hilen ondoren, %60koa”

rako joera haustea zuen helburutzat Euskaraldiak, baina ohiturak haustea errazagoa edo zailagoa da solaskidearen arabera. Eta emaitza hau da: Solaskidea ezetzaguna denean, ohiturak aldatzea errazagoa da, hein handi batean harremanak laburragoak

eta azalekoagoak izaten direlako. Bada beste faktore bat ere, solaskideari lotutakoa. Euskaraz erraz egiten dutenei euskaraz egiten diete ia gehienetan euskaldunek, baina kostata egiten dutenei, nekezago, eta zer esanik ez ulertu bakarrik egiten dutenei (%40) edota erdizka ulertzen dutenei (%10). Bestalde, adinaren arabera ere jokabide ezberdinak izan dira Euskaraldian. Aldaketarik handiena gazteetan eman da. Euskaraldiak iraun zuen 11 egunetan erdararako joera gehien baztertu zutenak izan dira gazteak, baina gero euskarari gutxien eutsi diotenak ere bai. Adinekoetan aldaketa txikiagoa izan da, baina kontuan izan behar da erabilera-datua ere adin tarte horretan dela handiena.

Bada nabarmendu beharreko beste kontu bat ere. Euskaraldiaren adierazle izan ziren txapak baliagarriak izan zitzaizkien erabiltzaileei. Hirutik bik jantzi zituzten, eta talde sentimendua indartzeko balio izan zien.

Argi-ilunak

Balekoa izan da Euskaraldia. Horixe izan da ondorio nagusia. Balekoa, nagusiki hiru arrazoigatik: talde sentimendua indartu duelako, norberarenak ez ezik, solaskideen ohiturak aldarazi dituelako, eta norbere jokabideaz gogoeta egiteko aukera eman duelako, nork bere hutsuneak ikusteko aukera. Baina bere alde ilunagoak ere ikusi dizkiote. Batetik, komunikazioan ez dela asmatu eta ez dela sektore guztietara iritsi Euskaraldiaren berri. Gune erdaldunetan, esate baterako, kosta egin da parte hartzaileak lortzea, eta gune euskaldunagoetan ere ez da erraza izan, euskaldun batzuek ez ziotelako zentzurik ikusi. Era berean, Euskaraldira batu direnetako askok ez dute ariketa bera behar bezala ulertu.

Danobatek Hembrug enpresa herbeherearra erosi du merkatu berrietan posizioa indartzeko

Gogorrea doitasunez torneatze lanetan liderra den Herbeheretako Hembrug Machine Tools enpresa erosi du Danobatek. Hannoverren (Alemanian) eman dute erosketa akordioaren berri, EMO azokaren barruan, Europan egiten den makina-erreminten azokarik nagusienean. Danobatek artezketan duen *expertisea* eta Hembrugek gogorrea doitasunez torneatze lanetan duena batzea dakar erosketak; hau da, teknologia osagarri bi konbinatuko dira merkatuari egiten zaion eskaintza aberasteko, bezero bakoitzaren premietara egokitutako soluzioekin. Danobatetik azaldu dutenez, Hembrug Machine Tools erreferentziako marka da Europan. 1670ean eratu zen, 1870az geroztik tornuak fabrikatzen ditu eta 1969an garatu zuen bere lehen makina teknologia hidrostato propioarekin. Gaur egun, 14 milioi euro baino gehiago fakturatu ditu urtean eta 60 lagun baino gehiagori ematen die lana. Oso sektore dibertsifikatuetan dago presente, automobilgintzatik hasi eta optikara arte, eta pisu handia dauka Erdial-



deko Europan eta Asiako herrialdeetan. Akordioa oso positiboki baloratu du Danobateko zuzendari exekutiboak (CEO) Xabier Alzagak, eta Hembrug moduko prestigio handiko marka bat sartzeak duen garrantzia azpimarratu du

Euskararekin Match!



19/20

Ikasturtea
Matrikula zabalik

www.udaleuskaltegiak.eus



Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Aita Agirre, 3 - 3.a

943 742 731

udaleuskaltgia.elgoibar@debabe.eus

IKASTAROAK

- 16 urtetik gorakoentzat **MATRIKULA ZABALIK irailaren 25era arte**
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
- Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero)

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

- **Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.**
- **Autoikaskuntza Internet bidez.**
- **Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.**
- **Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.**
- **Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)**
- **Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)**

Aita Agirren gaude

43.000 erabiltzaile ibili dira aurtengo denboraldian Mintxetako igerilekuetan



Domekan bukatu zen uda denboraldia Mintxetako igerilekuetan, eta arduradunek jakinarazi dutenez, aurtengoa 43.000 erabiltzaile ibili dira igerilekuetan, iaz baino mila lagun gehiago. Udal Kirol Patronatuko arduradunen ustez, kopuru horrek erakusten du herrian dagoen aisialdiko ekipamentu garrantzitsuenetarikoa dela Mintxeta. Uztailaren 15a izan zen igerilekuan erabiltzaile gehien sartu zen eguna: 1.429 erabiltzaile. Hilabetei dagokionez, berriz, uztaila izan da berriro ere kopuru handiena izan duen hilabetea: 20.248 erabiltzaile.

Emakumeentzako jabetzako ikastaroetan izena emateko epea urriaren 4an bukatuko da

Elgoibarko Udalak, Berdintasun Sailaren bitartez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, doako bost ikastaro antolatuta ditu Jabetze Eskolaren barruan, urritik abendura bitartean emateko: Komunikazio Eraginkorra, klown feminista, Nire Barneko Haurra Besarkatzen, Hausnarketa taldea, eta Tuppersex eta Ipuin Erotikoak. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, eta urriaren 4an amaituko da. Izen ematea egiteko bi era daude: Internet bidez, www.elgoibar.eus helbidean, (Identifikazio Sistema Elektronikoa izatea beharrezkoa da) edo aurrez aurre, Herritarren Arreta Zerbitzuan, Santa Ana 2an, astelehene ostiralera, 7:30etik 15:30era. Ikastaroetako plaza kopurua mugatua da, eta zozketa egingo da izena ematen duten emakumeen artean. Plazak betetzen ez badira, izena emateko epea luzatuko da, ikastaroa hasi baino aste bate lehenagora arte. Sarrera libredun saioetan haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da.

Jabetzako Eskola emakumeen autonomia pertsonala indartzeko, emakumeak ahalduntzeko, emakumeek jardueretan aktiboki parte hartzeko eta elkarren arteko sareak sortzeko sortu zen.

San Antolin jaietako errifaren irabazleak



San Antolin jaietako errifaren irabazleak agertu dira. Rosa Mari Etxanizi tokatu zaio Kanariar Uharteetarako bidaia, eta Ana Isabel Uribe jaso du janariz eta edariz beteriko orgatila.

Alderdi Egunera joateko autobusa, Elgoibartik

Irailaren 29an izango da Alderdi Eguna Forondan, eta Elgoibarko EAJ-PNVk hara joateko autobusa antolatuta du. 9:00etan irtengo da autobusa Kalegoen plazatik. Interesatuak ondorengo telefonora deitu behar dute izena emateko: 675 718 466 (Arantza)

Sallobenteko errifaren sariduna agertu da



Txahala edo haren balioa dirutan zozkatu zuten Sallobenteko jaietan, eta Gotzon Arriola izan da sariduna. Arriolak dirua aukeratu zuen. Xabi Arrillaga Sallobenteko lehendakariak eman zion saria.

Ane Beitia izango da Eudeleko batzorde eragileko kideetako bat



Elgoibarko IMH kiroldegian egin zuen atzo Eudelek (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko udalak biltzen dituen elkarte) urteko batzar nagusia, 2019-2023 agintaldirako gobernu-organo berriak izendatzeko. Batzorde Eragilea (15 ordezkari hautetsi, elkarteburua barne) eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde batzordeak (bakoitzak 9 ordezkari hautetsi izango ditu) izendatu zituzten. Elgoibarko alkate Ane Beitia izango da batzorde eragileko kideetako bat, eta baita Gipuzkoako Lurralde Batzordekoa ere.

Helduentzako dantza ikastaroak

Helduentzako Plazara Dantzara eta Larrain Dantza ikastaroak antolatu dituzte Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Musika Eskolak. Ikastaroa irailaren 30ean hasiko da, eta astean bi saio izango dira, astelehen eta eguaztenetan, 20:30etik 21:30era. Interesatuek Musika Eskolako idazkaritzan eman behar dute izena.

Xabier Arakistain 'Arakis'-ek jaso du Gure Artea Saria



Martitzenean banatu zituzten Gure Artea Sariak Gasteizko Artium museoa, eta horietako bat jaso du Xabier Arakistain *Arakis* elgoibartarrak. Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria jaso du. Arakistainek artearen munduan "bokazio politikoagatik" diharduela esan zuen saria jaso ostean eman zuen ber baldian. Iñigo Urkullu lehendakariak eman zion saria.

Kilometroak jaira joateko autobusa

Zarautzen izango da urriaren 6an Kilometroak jaira, eta Elgoibarko Izarrak hara joateko autobusa antolatu du, Udalarekin lankidetzan. Astelehenetik aurrera eros daitezke tiketak Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegoan. Elkarteko bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 8 euro. Autobusa 10:00etan irtengo da Sig-mako autobus-geltokitik, eta itzulera 20:00etan izango da.

Urdaibaira irteera Elgoibarko jubilatuekin

Jubilatuen Biltokiak Urdaibaira irteera antolatu du urriaren 9rako. Mundaka, Bermeo, Gaztelugatxe eta Bakio bisitatuko dituzte, besteak beste. 8:30ean abiatuko dira Elgoibartik, eta 20:00etan itzuliko dira. Interesatuek Jubilatuen Biltokian eman dezakete izena, astelehen eta barikuetan, 11:00etatik 12:00etara.

Frankismoko biktimak omenduko dituzte asteburuan

1936ko irailaren 21ean sartu ziren tropa kolpistak Elgoibarren, eta asteburu honetan omenduko dituzte orduko biktimak. Bihar, Frankismoan kartzelan edo kontzentrazio esparruetan preso izan zituztenak gogoratuko dituzte Kolunbarioan, 11:00etatik aurrera. Eta, domekan, berriz, Zirardamendi-Aiastia frontelerroan hildako gudariak omenduko dituzte Zirardamendin bertan. 11:00etan hasiko da omenaldia. Gernikako arbolaren kimuei bisita egin ostean, Zirardamendirantz joko dute, eta bidean, lurpetik gudariak ateratako tokian, banakako lorak utzi eta Zirardamendiko gurutzean beste lore sorta bat jarriko dute.



Aita Agirre plazan haur-parke berria eraiki dute.

Kultura erdigunera

Martitzenean zabaldu zuten Aita Agirre kulturunea. Kanpoko aldetik eraikinak lehengoaren itxura antzerakoa duen arren, barrutik erabat berrituta dago, eta ez dauka lehengoarekin zerikusik. Eraikin berri eta modernoa da, eta bera izango da aurrerantzean Elgoibarko “kulturaren elkargunea”. Aita Agirre eraikina 1925. urtean eraiki zuten, eta hasiera batean Elgoibarko Arte eta Ofizioen eskola izan zen. 1980an utzi zion eskola izateari, eta gerora, herriko hainbat elkarteren egoitza izan da. Besteak beste, AEK euskaltegia, Gurutze Gorria, Egur arte eskola edota Lagun Taldearen aterpe izan da. Eraikina, baina, zaharkituta zegoen, eta Udalak beste erabilera bat ematea erabaki zuen. 2017an hustu zuten erabat eraikina, eta kulturune berria eraikitzeko obrak hasi zituzten. Lanak uste baino luzeago joan dira, bidean hainbat zailtasun izan direlako, eta oraindik zerbitzu guztiak martxan ez badaude ere, kulturunea irekita dago.

- AINHOA ANDONEGI -

Martitzenean zabaldu zuten Aita Agirre kulturunea. 9:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, eta edozein herritarrek izango du hara sartzeko aukera. Dena dela, ordutegi horretatik aparte ere langileek izango dute beraien lanpostuetara sartzeko aukera, eta herritarrek ere ikasketa gelara sartu ahal izango dira, horretarako baimena ematen duen kode bat aurrez eskuratuta. Udaleko hainbat zerbitzu zentralizatu dituzte Aita Agirre kulturunean, eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotziak dio zentralizatzeko horrek nolabaiteko “batasuna” emango diola herriko kulturagintzari. Elkarlana bultzatuko du eta Elgoibarko kultur eskaintza aberasteko aukera emango du. Kultura plazara ekarri dutela adierazi du, bestalde, Ane Beitia alkateak, erdigunera: “Historikoki erabilera desberdinak izan dituen plaza hontara ekarri ditugu euskara eta kultura, eta Musika Eskolarekin eta gaur egungo Kultur Etxearekin batera, herri-herriko kulturunea eraiki dugu”. Kokapena “estrategikoa” du kulturune

berriak, eta herritarrentzako erakargarria izatea espero dute.

Luze joan dira obrak, hasieran aurreikusi zutena baino luzeago. Batetik, epeak luzatu behar izan zituztela azaldu du Arraizek, tabernako instalazioak egokitu egin behar izan zituztelako, eta horrekin batera, espero ez zituzten oztopoak ere agertu zaizkie bidean. Obrak 2017ko udan hasi zituzten, eta hasiera batean 2019ko urte hasierarako dena prest egongo zela aurreikusi bazuten ere, iraila iritsi da ateak zabaltzerako. Osoko Bilkurak onartu zuten enpresa eraikitzaileari isuna jartzea bi hilabeteko atzerapengatik, eta udalbatzaren hurrengo batzarrean onesten badute, 35.000 euroko isuna jarriko diote. Udalak 2,8 milioi euro + BEZ erabili ditu kulturunea eraikitzeko. Aita Agirre eraikina monumentu historikoen katalogazioan sartuta dago, eta izendapen horren eraginez, eraikinaren estruktura mantentzea derrigorrezkoa zen. Hasiera batean eraikina bera atzerantz zabaldu eta altxatzea aurreikusi bazuten ere, barrukaldea bakarrik berritzeko aukera

Arkupeko sabaian ispilua jarri dute.

izan dute azkenean.

Eraikin modernoa eta inteligentea da, domotikoa eta dena teknologia bidez kontrolatuta dago. 1.911,16 metro koadroko azalera du, eta hiru solairutan banatuta dago: Beheko solairuak 596,17 metro koadro izango ditu; lehen solairuak 311,90 metro koadro; bigarren solairuak, 487,32, eta hirugarrenak, teilatupekoak, 400,52.

BEHEKO SOLAIRUA

Eraikinak bost sarrera ditu aurreko aldera, eta horietatik, hegalerena dauden biak, independenteak izango dira. Ezkerreko sarreratik Udal Musika Bandaren eta Mautitza txarangaren lokalera sartu ahal izango da, eta eskuineko sarreratik, berriz, tabernara. Erdiko hiru ateak, berriz, eraikin nagusira sartzeko balio dute.

Beheko solairu honetan hiru gune bereizten dira: Udal Musika Bandaren eta Mautitza txarangaren entseguetarako aretoa, harmailak eta funtzio anitzeko gela, eta taberna.

Harmailak itxaron-gune moduko bat izan daitezke, edo herritarrentzako aisialdirako gune ere bai. Formatu txikiko ikuskizunetan eserleku moduan erabiltzeko ere proposak dira, eta horrez gain, lehenengo solairurako eskailera funtzioa ere betetzen dute. Funtzio anitzeko gela batera ematen dute harmailek, eta gela horrek bi itxitura ditu, beharren arabera gelaren tamaina mugatzeko erabiliko direnak. Gela honek sarrera independenteak ditu, eta beharren arabera ate bat edo bestea erabili ahal izango dira. Horri esker, herritarren atzera-aurrerak sahiestuko direla uste du Arraizek, eta goiko solairuetan lanean ari direnei trabarik egin

gabe antolatu ahal izango direla ekitaldiak.

Beheko solairuko eskumako aldean taberna dago. Oraindik ez dago martxan, baina Hirigintza zinegotziak aurreratu duenez, urrian irekitzeko moduan egongo dira: "Ez da taberna arrunt bat



Aita Agirre eraikina gauz.



Bigarren solairuan kokatu dute Gotzon Garate Udal Liburutegia.

izango. Kulturgunearen barruan kokatuta dago, eta kultura sustatzea izango du helburu". 500 euroko errenta ordaindu beharko du hilean tabernariak, eta diru-irabazien parte bat kultur ekintzak antolatzeko erabili beharko du. Urtean gutxienez hamar kultur ikuskizun eta beste hamar kontzertu antolatu beharko ditu.

Beheko solairu horretan biltegia, zamalanetarako gune bat, komunak eta dutxak ere badaude.

LEHENENGO SOLAIRUA

Lehenengo solairuko ezkerreko aldean hitzaldi gela dago. 90 bat aukeri jartzeko espazioa dauka, eta Kultur Etxeko hitzaldi gelaren osagarria izango da aurrerantzean. Herriko eragileek bi guneak erabiltzeko aukera izango dute. Lehenengo solairu horretan kokatu dituzte baita ere Udaleko Euskara, Kultura, Berdintasuna eta Gazteria sailak. Komunak eta bilera gela bat ere badaude solairu honetan.

BIGARREN SOLAIRUA

Bigarren solairua Gotzon Garate Udal Liburutegiak hartzen du ia oso osoan. Solairuaren eskumako aldean 25 metro koadro dituen KZgunea kokatu dute, baina solairuaren gainerako azalera guztia liburutegientzako gorde dute. 600 bat metro koadro ditu, eta gune desberdinetan bereiztu dute. Tamaina aldetik, liburutegi zaharra baino apur bat txikiagoa da oraingoa, baina erabilera aldetik askoz praktikoagoa dela azaldu du Andrea Arriola Kultura zinegotziak. Umeentzako gune bat dauka, gune nagusi bat gainerako erabiltzaileentzako, eta bi ikasketa gela. Ikasketa gela horietako batek funtzio desberdinak izango ditu, eta beharren arabera gela bere osotasunean edo hiru zatitan erabili ahal izango da. Arriolak uste du gela horrek liburutegiko jarduerak antolatzea erraztuko duela, eta aproposa izango dela baita ere ikas-



Udal Liburutegia, hirugarren solairutik ikusita.

leek taldeko lanak egiteko. Era berean, sarrera propioa duen ikasketak gela bat ere atondu dute liburutegian. Gela hau liburutegia itxita dagoenean ere erabili ahal izango da. Oraindik ez dute zehaztu gela honen ordutegia, baina aurreratu dute "ordutegi zabal" izango duela. Gela hori erabili ahal izateko baimena eskatu beharko da aurrez. Liburutegiak irakurketarako guneak ditu, eta mahai guztiak argindarrez eta Internetarako sarbidez hornituta daude, gailu informatikoak erabili ahal izateko. Funtzionalitate aldetik praktikoagoa dela uste dute arduradunek.

HIRUGARREN SOLAIRUA

Hirugarren solairua teilatupean geratzen da. Azken solairu hau euskararentzat gorde dute, eta bertan kokatu dituzte Debabe Udal Euskaltegia eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea. Azalera handiena Udal Euskaltegiak hartzen du. Lau gela, irakasleen gela eta administrazio bulegoa ditu. Solairuaren beste hegalean dagoen bulegoa Elgoibarko Izarrarentzako gorde dute.

KANPOALDEA

Aita Agirre kulturgunera hurbildu ahala, arkupeko sabaian dagoen ispiluak jasotzen ditu herritarren begiradak. Arraizek azaldu du ispilu horrek ukitu modernoa emateaz gain, argitasuna emango diola arkupe horri, eta modu horretan, ilun dagoenean ere jendeak espazio hori erabili ahal izango duela. Eraikinarekin batera, Aita Agirre parkeak berak ere itxura berriua dauka. Hasteko, zuhaitzak aldatu dituzte, lehengo plantanondoetako batzuk ustelduta zeudelako, eta batek baino gehiagok barruan zementoa ere bazutelako, "aurreko obraren batetik edo". Horrez gain, parkeko zona batean zuhaitz berriak jarri behar zituzten eta iruditu zitzaizen zuhaitz guztiak espezie berekoak izatea egokiagoa zela. Judas arbolak dira oraingoak. Tamaina, ematen duten itzala eta eskatzen duten mantentze lana izan dira zuhaitzak aukeratzeko orduan kontuan hartu dituzten irizpideak. Zuhaitzekin batera, haur-parke berria eraiki dute, eta lehengoak baino espazio handiagoa hartzen duenez, aparkaleku batzuk kendu egin behar izan dituzte. Lehen tasuna eman nahi izan diete oinezkoei, baina aldi berean kontuan izan dituzte merkatariak eta baita erdigunean bizi direnen aparkatzeko beharrak ere. Hortaz, lehengo aparkaleku gehienak mantendu dituzte, 30 bat. Lehen bezala, OTA-TAO sistema bidez arautuko dute aparkatzeko denbora, herrigunean mugimendua egon dadin. Plazaren erabilerari dagokionean, berriz, obrak erabat amaitzen dituztenean lehengo ekintza guztiak bertan egingo dituzte berriro: Besteak beste, azken zapatuko ganadu feria, ostegunetako azoka eta jaietako hainbat ekintza. Horrez gain, plaza kultur ekintzeta-rako erabiltzeko aukera ere egongo da aurrerantzean.



Urrian zabalduko dute kulturguneko taberna.



Beheko solairua lehenengoarekin lotzen dituen harmailak.



Udal euskaltegiak Aita Agirre eraikinean hasi du ikasturtea.



90 bat lagunentzako lekua dauka hitzaldi gelak.



KZgunea.



Ezkerretik eskumara Andoni Segundo, Iñaki Raigoso, Lorea Basalo eta Jokin Martinez. Argazkian, Maitena Zubia eta Lutxi Arregi falta dira.



“Iraileko zinemaldiari bere izena jartzea Iñaki Agirre beti gogoratzeko modu berezia izango da”

▶ JOKIN MARTINEZ ONGARRI ZINEKLUBEKO KIDEA

Donostiako Zinemaldiaren 67. edizioa baino egun bat lehenago iritsi da Iñaki Agirre Zinemaldia Elgoibarrera, eta hain zuzen ere, Iñaki Agirrek hain gustuko zuen Nadine Labaki libanoko zuzendariaren ‘Cafarnaúm’ filmarekin eman zaio hasiera ziklo honi. Film horrez gain, bihartik astelehenera bitartean Koreedaren ‘Un asunto de familia’, iazko Donostia Sariaren filma, ikusteko aukera izango da. Zuzendari japoniarrak nazioartean duen arrakasta bera izan ohi du Ongarriren ikuslegoaren artean. Jokin Martinez Ongarriko kideak eman digu guzti honen berri.

- LEIRE URKIDI -

♦ Zein izan da Ongarriren ardatza 2019ko zinemaldia antolatzerako orduan?

Ekialdeko zinema du oinarritzat, baina abiapuntua *Cafarnaúm* izan zen. Nadine Labaki Iñaki Agirreraren zuzendari kuttunetarikoa bat zen, eta *Cafarnaúm* filma oso gustuko zuen. Istorioa konta-

tzeko moduak eta bereziki bertan ikus dezakegun Libanoko argiak solasaldi asko eman zizkigun Iñakirekin, eta Ongarriko kideok ez genuen dudarik izan: derrigor eman behar genuen irailko zikloan. Udan, aire libreko emanaldietan sartu nahi izan genuen, baina ezinezkoa izan zitzaigun.



♦ **Iaz Koreedak Donostia saria jaso zuen eta Canneseko zinemaldian Urrezko Palmarekin saritutako 'Un asunto de familia' aurkeztu zuen. Bere filmak ez dira berriak Ongarriren programazioan.**

Ez, Koreeda gustuko zuzendaria da, eta *Después de la tormenta*, *De tal padre, tal hijo*, e.a. eman ditu Ongarriren aurretik ere.

♦ **Aurten, Donostian, 'La Verité' aurkeztuko du Koreedak, Perlak sailean. Datorren urteko zuen programaziorako aukera bat izan daiteke?**

Agian bai!

♦ **Omenaldi modura planteatu duzue iraileko zinemaldiari Iñaki Agirre izena jartzea?**

Bai, udan aire libreko zinemaldian Lutxi Arregik ekoiztutako dokumental bat eman genuen, eta horrez gain, izena aldatzea nahi genuen. Iñakiri urte askoren ondoren zerbait iraunkorra utzi nahi genion, eta berak sortutako iraileko zinemaldiari bere izena ematea egoki iruditu zitzaigun. Ordu

“Udaleko Kultura Sailaren babesa dugu, eta momentuz lanean jarraitzeko moduan gaude. Baikorak gara!”

“Taldekide guztiok argi genuen zineklubarekin aurrera egin behar genuela, beraz, denon artean hartu dugu programazioaren ardura”

asko ematen zituen zinemaldi hau prestatzen. Nazioarteko zinemaldiak oso gertutik jarraitzen zituen eta informazio asko zeukan guzti honen inguruan. Irailero, zineklubeko emanaldi hau iristen denean, Iñaki modu berezian oroitzeko balioko digu honek. Beti gogoan izateko modu berezia izango da. Zenbat ordu ematen zituen hau prestatzen, zenbat buruhauste ematen zizkion zikloak... baina oso gustura egiten zuen; zinema bizi zuen.

♦ **Nola berrantolatu dituzue lanak Ongarri zineklubean?**

Taldekide guztiok argi genuen zineklubarekin aurrera egin behar genuela, eta denon artean hartu dugu programazioaren ardura.

♦ **Ez dira garai onenak zinemarentzat. Zein da Ongarriren egoera?**

Udaleko Kultura Sailaren babesa dugu. Beraiek ere zinekluba mantentzeko asmoa adierazi digute behin baino gehiagotan, eta momentuz, lanean jarraitzeko moduan gaude. Baikorak gara!

♦ **Netflix plataformak ekoiztutako Alfonso Cuaronen 'Roma' filmak jasoko du Donostiako Zinemaldiko Fipresci saria. Plataforma digitalak barneratu dira nazioarteko zinemaldietan. Honen inguruan zein da Ongarriren postura?**

Ez dugu honen inguruan eztabaidatu, baina Isabel Coixeten azken pelikula, *Elisa eta Marcela*, programatu nahi genuen eta Netflix-ek ekoizturikoa denez, ezin izan dugu. Ez du distribuzioa baimentzen eta honekin ez nago batere ados. Nire ustez baimendu beharko luke. Nahi duenak telebistan ikus dezala, baina zineman ikusi nahi duenak horretarako aukera izan beharko luke. Film interesgarria da, istorio erreala, XIX. mendean bi emakumeren artean estatu espainiarrean eman zen lehen ezkontza.

♦ **Zineak gizarteko hainbat arlo jorratzeko bidea ematen du, batzuetan erosoak ez diren gaiak heltzeko bide ezin hobea ere izan ohi da.**

Bai, hala da, eta Ongarri beste hainbat elkarterekin batera ari da urtean zehar lanean hainbat gai zinemaren bidez heltzeko, hala nola, emakumearen aurkako indarkeriaren eguneran, martxoak 8an ospatzen den emakumearen egunerako ekitaldietan edo LGBT+ kolektiboekin bat egiteko.

♦ **Nola ikusten duzu Ongarriren etorkizuna?**

Ongarri honaino iritsi bada Iñaki eta beste batzuren lanagatik izan da. Hori zor diegu, eta ea 20 urte barru hemen jarraitzen dugun!

Musika zaleen egutegian asteburu berezia da irailko hirugarren hau. Sotoko Hotsak eta Mendaroko Gararock jaialdiek bat egingo dute aurten ere, eta bi eskaintzek bat eginda, hiru eguneko musika eskaintza izango dugu gurean. Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan, Mozal taldea ekarri zuten atzo Sinuöse kultur elkarteko lagunek Elgoibarrera, eta Crudo Pimento talde murtziarra gonbidatu dute gaurko (Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etan). Bihar, berriz, Mendaroko Garagartza auzoko plaza hartuko dute, La Basuk, Joseba Irazoki eta lagunek, Kokeinek eta ibilbide eta sona handiko beste hainbat taldek. Musika bizi duen lagun talde bat ari da bien antolakuntza-lanetan, eskarmentu handiko jendea, eta jakina, musika eskaintza bera ez ezik, jaialdi on batek eskatzen dituen gainerako osagaiak ere zaindu dituzte, mimo handiz. Mendaron, esate baterako, hiru food truck izango dira bihar, Garagartzara batzen direnek dena eskura izan dezaten. Bi orrialdeotan, talde gonbidatuei erreparatu diegu.

- AINARA ARGOITIA -



Irñaki Fortunek egin du Gararocken kartela eta Irñaki Ovejerak Sotoko Hotsakena.

Elgoibar eta Mendaro, musikak batuta

CRUDO PIMENTO

Elgoibar, Kultur Etxeko Sotoan, gaur 23:00etan



Murtziarrak dira eta Raul Frutos eta Inma Gomezek osatzen dute biko hau. Ez da ohiko musika talde bat, euren osatzen dituztelako instrumentuak eta erabiltzen duten hizkuntza musikala ere oso berea dutelako. *Pantame* da euren azken lana, flamenkora, reggaera, pop anglosaxoira edo jazzera gerturatze bat, eta inprobisazioa dute zuzenekoetarako ezaguarri nagusietako bat.

VILLAPELLEJOS

Bihar Mendaron, 17:30ean



2009an sortu zuten taldea Sophie Pell eta Cobos Pellejosek, Deustun, Bilbon. Gerora, Mr Smoky (bateria), Santi Torax (baxua), Char-Lee Mito eta Melena Simone (teklatura) batu zitzaizkien. Zuzeneko zenbaiten ostean, *Arde Toulouse* eta *La Era Reagan* lanak kaleratu zituzten, baina hirugarren lanarekin, *Elogios* y *Ampollas* izenekoarekin, osatu zuten askorentzat diskarik landuena eta asmo handikoena dena. Ironia fineko letrak dituzte eta kritika zorrotza eta umoretsua egiten dute. The Intelligence, Rezillos, B-52, Siniestro Total edota El Columpio Aesino taldeen ukitua dute.

BAKELITE

Bihar Mendaron, 20:30ean



Sergio Llanos (Atom Rhumba, Yogur eta Eureka Hot4 taldeen sortzailea) eta Naiara Anasagastik (Paniks) osatutako bikoa da. Naiarak sortzen ditu letrak eta jartzen du ahotsa, baina bateria eta gitarra ere jotzen ditu. Sergiok gitarra jotzen du eta bigarren ahotsa da. Kantu lasaienetatik elektrikoenera artekoak dituzte, hasi blues eta folk estilotik noisera artekoak. *Azeriak* izeneko lehen LPan, Rafael Martinez del Pozoren (AA Tigre, La JR, Yogur) laguntza izan dute, eta hiru urteko geldialdiaren ostean, zuzenekoetara itzuli dira orain.

MAGNETICO GRUPO ROBOT (M.G.R.)

Bihar Mendaron, 18:30etan



2012. urtean sortu zuten Bermeon Münsterland, Eureka Hot IV, Los Frenos, Los Brebes eta beste hainbat taldetan aritutako hainbat musikaririk. Los Brebes proiektuaren jarraipen edo eboluzio natural eta teknologikoa da M.G.R. Abesti oso laburren aldeko jarrera kontzientea dute eta beraien kanta NoMeansNo kanadarren konplexutasunetik, Dead Kennedysen histeriatik edo eta DEVOn ironia teknologikotik edaten dute. Azken horien eragina nabarmena da, teklatueta ez ezik taldean hain garrantzitsua den estetika abangoardista, robotiko eta ganberroan ere sumatzen baita DEVOn itzala. 2013an argitaratu zuten lehenengo lana: *MGR001*. Bigarren lana, *MGR002*, 2016an iritsi zen eta hirugarrena, *MGR003*, 2018ko azaroan. Jonan Ordorikaren gidaritzapean argitaratu zuten. Orain, geldialdi baten ondoren, "pilak kargatuta" datozela diote, ikuskizun eta zuzeneko berri batekin. Euskaraz sortutako post-punk eta art-rock proposamena da MGRrena.

LA BASU Rap Hip-Hop

Bihar Mendaron, 19:15etan



Elena Caballero bilbotarra da *La Basu*, erreferente bat Euskal Herriko rap eskaintzan. 2001. urtean, *#k* diskoarekin, hasi zen kontzertuak ematen, Euskal Herrian nahiz hemendik kanpora. Gero, etenaldi baten ondoren, *Remixes* izeneko Epa argitaratu zuen 2013an, eta *Aire es Vida* diska, 2015ean. Azkeneko horretan, lehen aldiz, euskarazko kantu bat sartu zuen. Raparen munduan emakumeek duten presentzia oso urria zela ikusita, eta rapa euskaraz sortzen zutenak are gutxiago zirela ikusita, 2017an, euskaraz sortu zuen bere hurrengo lana oso-osorik: *Ni izotz erregina*. Bertsoak, dancehall eta swing doinuak uztartu zituen. Azkenaldian, hainbat artistarekin batera jardun da: Aneguria, Fermín Muguruza, Enkore, Maria Rivero, Sara Hebe edota Natalia Garmendiarekin besteak beste. Ibai Dja lagun hartuta etorriko da Mendarora ere.

KOKEIN

Bihar Mendaron, 21:45etan



Zalóa Urain (ahotsa), Ruben Txitxes (gitarra), Haritz Lete (bateria) eta Jatsu Argaratek (baxua) 15 urte daramatzate elkarrekin, eta hamar bat urte badira Iker Saez de Zaitegi (gitarra) batu zitzaizela taldera. Rockaren koordinadetan mugitzen dira hasieratik, baina Kokeinen musikan rocka ulertzeko modu asko batzen dira. *Lurpekhariä* euren azken lanaz ere hala diote kritikak. Oinarri erritmikoek marrazten dute kantuaren bidea. Pedalerek, loop-ek, delayek eta milaka efektuk finkatzen dute Lete eta Jatsuren bi gitarren soinua, batzuetan zikin eta distortsioz beteta, eta hurrengo, garbi eta melodiko, eta Zalóa Urainen ahotsak biribiltzen ditu.

JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

Bihar Mendaron, 23:00etan

Makina bat proiektutan murgildu den gitarrajole berarra da Joseba Irazoki. Besteak beste, Mikel Erentxun, Atom Rhunba eta Natxo Vegasekin aritzen da. Irazokiren



ukitua igarri-igarrikoa izan ohi da, bai bakarkako proiektuetan, bai Bas(h)oan bezalako proiektu berezi eta klasifikagaitzetan ere. Beñat eta Julen Achiaryekin batera esperimentazioarekin jolasten du Irazokik Bas(h)oan. *Zu al zara?* (Bidehuts 2018) izeneko bere bigarren lanak rock alternatibo deitzen den horretan lehen lerroan kokatzeko balio beharko liokela uste dute adituek, izan ere, disko horretan "maisuki" nahasten ditu estilo desberdinak, rock-a edota psikodelia ukituko pasarteak. "Konplexua" bezain "entzunerraza" irizten diote kritikoek Irazokiren berezko delirio puntuak ere badituen bigarren lan horri. Eta ezaugarri horien arteko orekarekin lortu du publiko zabalago batengana iristea. Kontzertu ugari eman ditu han eta hemen, eta Gararockera "indartsu" datorrela dio.

LÄNH / La Niña Hilo

Etzi Mendaron, 00:15etan

Nafarroa erriberrako taldea da Länh, Laura Recarte moda diseinatzaile, konpositore eta abeslaria, eta Cesar Bueno musikaria buru dituenak. 2012an kaleratu zuten *Prologo* izeneko lana, euren ekotzita, eta Japonian, New Yorken eta mundu osoko hainbat hedabidetan oihartzun zabala izan zuen lan hark. 2014an ekotzi zuten bigarren lana, aurrekoaren antzera Hans Krügerrek egindako nahasteketekin: *A la espera*. Diska hark sona handiagoa eman zien eta kontzertu asko emateko bidea zabaldu zien estatu mailan. 2017an kaleratu zuten momentuz euren azken lana dena: *Family*. Hirugarren lanak badu ezberdintasunik aurrekoekin alderatuta, kritikoan esanetan: "Lasaiagoa da, eta heldutasun handiagokoa. Entzunaldi bakoitzean gauza berriak eskaintzen dituenak."



Alvaro Gimenez

TRIALSIN GIDARIA



Kirolerako duen berezko dohaiari eta bizikletarako duen pasioari gehitu astean sei egunez entrenatzen dela, eta hala ere, gehiago nahiko lukeela. 8 urterekin hasi zen trialsinean Alvaro Gimenez Aretxabaletako Oztopo Trialsin Klubean, eta bi urte eskasean goia jo du. Ekainaren 23an Espainiako txapelkun izan zen, eta abuztuan, munduko txapelketa irabazi zuen Polonian, 9 eta 10 urte artekoetan. Ordutik, Mendarok beste munduko txapelkun bat du, bigarrena. Alvaro eta bere aita Ibanekin batu da BARREN.

- AINARA ARGOITIA -



“Aukera banu, egunero entrenatuko nintzateke trialsinean”

◆ Espainiako Txapelketa irabazi zenuen aurrena. Nola izan zen?

Alvaro: Euskadiko Federaziotik deitu zidaten Espainiako Txapelketara joateko proposatzen, nahiz berez edonor joan daitekeen Espainiako Txapelketara. Murtzian izan zen lasterketa, Cartagenan, eta irabazi egin nuen. Lasterketa hark zabaldu zidan bidea munduko txapelketara joateko, Espainiako Txapelketakoa delako probarik puntuagarriena mundukora joateko.

◆ Zer beste behar da ba munduko txapelketarako sailkatzeko?

Alvaro: Munduko Txapelketara herrialdekako bost onenak bakarrik joan daitezke, eta hemendik, Espainiako Txapelketako eta Espainiako Kopako lasterketetan batez besteko onena lortu dugun bostak joan gara. Bi txapelketak kontuan hartuta, lau lasterketa dira guztira, baina hiru las-

terketako emaitzak erabili dituzte batez bestekoa egiteko. Cartagenan jokatu genuen Espainiako Txapelketakoa, eta Guadalajaran eta Torredembarra jokatu genituen Espainiako Kopako bi lasterketak. Kopako hirugarren lasterketa hilaren 29an jokatu dugu, Cambrilsen, baina momentuz bigarren noa sailkapen nagusian.

◆ Kontaguzu. Nolako izan zen ba munduko txapelketa?

Alvaro: Furgonetaz joan ginen laurok Wadowicera (Polonia), ama, aita, anaia eta ni. 2.300 kilometro daude hemendik hara eta bost egunetan egin genuen bidea. Txapelketa baino bi egun aurretik iritsi ginen hara, lekua ikusteko eta besteak nola entrenatzen ziren ikusteko, bi bakarrik ezagutzen nituelako. 16 urtez azpiko 158 trialsin gidarik parte hartu genuen munduko pilotu gazteen trialsin txapelke-

tan. Sei kategoriatan banatuta aritu ginen, eta ni 9 eta 10 urte bitartekoen saillean lehiatu nintzen (Poussins kategorian). 31 bat gidari ginen guztira, gehienak 10 urtekoak. Lehenengo egunean 31 pilotuak lehiatu ginen. Bost zirkuituri bina buelta emateko ordu térdiko denbora jarri ziguten eta ondoen egin genuen lehenengo hamabiak bigarren egunerako sailkatu ginen. Lehenengo bukatu nuen nik, ez nuelako akatsik egin. Egia esan ez zitzaidan oso zaila egin. Finlean zailtasun handiagoko probak jarri zituzten, eta lehenengo zazpi pilotuok elkarrengandik oso gertu ibili ginen. Baina oso pozik amaitu nuen, akatsik egin gabe. Nire aiton-amonak ere etorri ziren hegazkinez ni ikustera eta negarrez bukatu zuten.

Iban: Bera zirkuitu zurietan lehiatzen da txapelketan, baina ohituta dago, bi edo hiru kategoria gorakoekin ibiltzen zaila-

*“Finalean,
lehenengo
zazpi pilotuak
elkarrengandik gertu
ibili ginen”*

sun handiagoko zirkuituetan, eta horregatik dio ez zaiola horrenbestekoa iruditu hangoa, baina han bromarik ez zegoen. Zortea ere izan zuen, eta hori ere ezinbestekoa da halakotan. Munduko txapelketara onenak iristen dira, eta han ez dira hemengo lasterketetan beste huts egiten. Hauek, gainera, umeak dira, eta ez da nagusietan bezala. Hauek akats bat egitean hondoa jotzen dute. Alvarok egin izan du hori ere: oker hasi eta lehenbailehen amaitzearren hanka nahita lurreen jarri. Aurten, baina, urtea amaitzerako hogeitabost bat lasterketa jokatuko ditu, eta igartzen zaio esperientzia hori.

♦ **Guraso izanda, nola bizi izan zenuen finala?**

Iban: Behin txapelketa hasten denean ezin da pilotuekin hitzik egin han, eta urduritasun handiz jarraitu genuen proba osoa. Azkeneko bi zirkuituen faltan Alvaro lehenengo postuan zihoan eta banekien akats handirik egin ezearan berak irabaziko zuela, besteen puntuazioak ere ikusten genituelako telebista-paneletan, baina ez zen motza egin, ez. Oso seguru ikusten nuen semea, konfiantza handiarekin, baina sekula ezin da jakin. Sekulako oihuak egin genituen amaitzean. Bera, baina, ez da kontziente lortu duenaz, eta alde batetik, pozten gaitu horrek ere, puztu-puztu eginda ibiltzea baino hobea delako. Orain ari da jabetzen pixkat, jendea zoriontzen hasi zaionean. Begira, anekdota bat kontatuko dizut. Bueltako bidean, Europa Parkera joan ginen etxeko txikienak ere goza zezan, goiz gehienak Alvaroren entrenamenduetarako izan direlako egun hauetan, eta arratsalde gehienak, turismoa egiteko. Eta etxerako bidean galdetu genion Alvarori bere esperientziaz eta oporraldiko onena Europa Parkera joatea izan zela erantzun zigun. Izugarria egin du, baina lagunak zoriontzen hasi zaizkion arte ez da jabetu ere egin.

♦ **Munduko txapeldun batek nola antolatzen ditu entrenamenduak?**

Alvaro: Orain, astean sei egunetan entrenatzen naiz normalean, baina neguan gutxiagotan, azkarrago iluntzen duelako eta

astelehen eta asteazkenetan ingelesetik irriten naizenean ilunduta egoten delako. Baina, aukera banu, egunero joango nintzateke entrenatzera, oso ondo pasatzen dudalako bizikletan. Larunbat goizetan Aretxabaletara joaten naiz, eskolak hartzea eta han daukagun zirkuitoan Oztopo klubekoekin entrenatzera, eta larunbat arratsalde askotan Abarzuzara (Nafarroa) joaten gara. Aretxabaletan joako-eta egiten ditugu, baina Abarzuzako entrenamenduak apur bat zorrotzagoak dira, gehiago txapelketara begirakoak. Udan, Gasteizera ere joan izan naiz batzuetan, baina beste egunetan nire kasa entrenatzen naiz, aitarekin. Lehen, hasi nintzenean, Mendaron ibiltzen nintzen entrenatzen eskolatik irtendakoan, dena neukalako ikasteko, baina orain, zailtasun handiagoetan entrenatu behar naiz eta askotan Mutrikuko portura joaten gara. Bestela asko bidaiatzen dugu, batez ere Katalunia aldera, piloturik eta zirkuiturik onenak han daudelako. Espainiako gehienak ezagutzen ditut eta harreman ona daukagu gure artean.

♦ **Gurasoentzako ere bada diziplina.**

Iban: Hori garbi, gurasook babestu ezean ezin izango luke maila honetan jarraitu, kirol honetan entrenatzen ari dela ere ondoan behar gaituelako beti. Eta bai, dedikazioa ia eskusibo da, baina berak nahi duelako dabil honetan, ez guk behartuta. Beste semea ere hasi zen, baina laga zuen, eta Alvaro bera ere eskalatzen hasi eta laga zuen, izugarrizko dohaiak zituen arren. Beti izan da abila kirolerako, eta afizioa izatea badago horri lotuta ere.

Kontua da askotan geuk esan behar izaten diogula nahikoa duela, beragaitik bultzatzen egun osoa emango lukeelako bizikleta gainean. Dena den, kontu bat: askok galdetzen didate nola lagatzen diodan horrenbeste egunetan entrenatzen, baina ez dira jabetzen futbola gustuko duen mutikoa ere astean pare bat egunetan entrenatzen dela, baina gainerako egunetan ere ahal duen guztietan ibiliko dela lagunekin futbolekin. Bada, hemen berdin.

♦ **Nola moldatzen zara ikasketak entrenamenduekin uztartzeko?**

Alvaro: Ondo. Iaz, bazkal ondorenean egiten nituen etxeko lanak, arratsaldean entrenatu ahal izateko.

Iban: Badaki eskola dela garrantzitsua hemen eta jarraitu nahi badu eskola-kontuetan ere saiatu behar duela. Eta momentuz ez daukagu kexarik. Denbora dagoena da, eta antolatzen ikasi behar da hemen. Hori oso garrantzitsua da bizitza honetan. Kirolak erakusten du sakrifizioa gabe ez dagoela ezer, eta bide batez, balio du baita ere astia okupatzeko eta umea kaltegarri diren beste ohitura batzuetatik urruntzeko.

♦ **Denbora gutxian jo du goia semeak. Nola ikusten duzu?**

Iban: Proiekzioa oso ona da, daraman denboran izugarri hobetu duelako, baina oraindik oso gaztea da eta laga ere egin dezake, aspertuta edo beste edozein arrazoigaitik. Ez dizut ukatuko: orain, teknikoki oso ona da, eta bere kategorian, txurietan, izugarri ondo dabil, baina datorren urtean zailduko zaizkio kontuak. Ibili, ibiliko da, eta nahiko ondo moldatuko da ziurrenera, hasita dagoelako zirkuito urdin eta berdeetan entrenatzen, baina urdinetako lehen urtean, urtebete zaharragoekin lehiatuko da eta ez du orain bezain erraz izango. Hala ere, esandakoa: jarraituz gero, lau bat urtean ondo moldatuko da, baina 16 urte betetzean, zirkuito laranjetan lehiatzen hasiko da, eta hor bai, hor, igarriko du saltoa. Teknikaz gain, beste ezaugarri batzuk ere behar dira kategorian horretan lehiatzeko, indarra besteak beste, eta gauza jakina da gorputz guztiak ez direla berdin garatzen.

San Bartolome jaien balorazio "oso positiboa" egin du Udalak

Ane Beitia alkateak eta Udaleko hainbat teknikarik San Bartolome jaien balorazioa aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten joan zen astean. Aurtengo jaiak oso positiboki baloratu ditu Udalak, eta, jaien antolakuntzan parte hartu duten guztiei eskerrak eman dizkie. Guztira, adin eta gustu guztiei zuzendutako ehun ekintza burutu direla zehaztu zuen Ane Beitiak prentsaurrekoan, eta horien artean, Baserritarren Eguneko gauean egin zen bideo mapping saioa nabarmendu zuen harrera oso ona izan zuela arrazoituta.

Aipamen berezia egin zion aurtengo Txiki Egunari ere. "Aurtengoa ezin hobea izan da". Mauxitxa txarangak 50. urteurrena ospatu zuen Txiki Egunean, eta egun berezia izan zen, bai herri-arentzat eta baita txarangako kideentzat ere.

Sokamuturrari dagokionean, gertakari larririk ez dela izan nabarmendu zuten. Segurtasuna handitzeko, aurtengo itxitura gehiago jarri ditu Udalak, bai eta hesi bertikalak ere, aurtengo berrikuntza nagusia izan direnak, eta hartutako erabakiez balorazio positiboa egin zuten.

Udaleko Berdintasun Sailak, Emakumeen Kontseiluaren eta ostalarien laguntzaz, berdintasunean oinarritutako jai parekideen alde egindako ahalegina ere nabarmendu zuen alkateak, eta pozik agertu zen jaietan "ezbehar larririk" gertatu ez dela-eta. Era berean, alkoholaren eta bestelako drogen erabilera saihesteko edota drogak kontsumitzeak dakartzan arriskuez ohartarazteko martxan jarritako programek izandako emaitzez ere balorazio



ona egin zuen. San Bartolome bezperako gauean, 107 pertsonari eman zitzaien informazioa gune horietan, eta Baserritarren Eguneko gauean, 343 pertsonari. Era berean, 203 lagunek eskatu zuten alkoholimetria proba egiteko. Horrez gain, 23ko gauean, Ai Laket! Elkartekoak gazteek botiltzarra egiten duten tokietara hurbildu ziren prebentzio, kontzientziario, eta alkoholaren kontsumoan aholkuak eskaintzera. Guztira 87 kuadriletako 542 pertsonari (12 eta 30 urte artekoak) eman zieten zerbitzua. Oro har, aurtengo jaietan "giro ona, errespetua, bizikidetzaren ona, harmonia eta tolerantzia" nagusitu direla nabarmendu zuen Beitiak.

'Tertuliak' egitasmoan izena emateko epea zabalik dago

Urriaren hasiko da *Tertuliak* egitasmoa, euskaraz hitz egin nahi, baina horretarako aukerarik ez dutenentzako. Lauzpabost laguneko taldeak osatu eta talde bakoitzean euskaraz ondo dakien lagun bat jarriko dute, taldea dinamizatzeko. Astearen ordubeteko konpromisoa hartuko dute partaideek. Iaz 46 lagunek hartu zuten parte, 10 taldetan banatuta. Elgoibarko Izarra, AEK eta Udal Euskaltegia dira egitasmo honen eragileak. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko ondorengo telefonoetara deitu daiteke: AEK euskaltegia (607 601 423), Udal Euskaltegia (943 742 731) eta Elgoibarko Izarra (943 741 626).

Aire libreko pintura lehiaketa egingo dute Mendaroko hilaren 28an

Mendaroko Udalak aire libreko margo lehiaketa antolatu du irailaren 28rako. Teknika eta formatoa libreak izango dira, baina gaia Mendaroko herria izango da. 9:00etatik 11:00etara zigilatuko dituzte euskarriak frontoian, eta lanak 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dira toki berean. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek 400 euroko sari bana jasoko dute. Herriarrentzako saria, aldiz, 300 eurokoa izango da. 14 urtetik beherako bi lan onenek margotzeko materiala jasoko dute. Saritutako lanak Udalaren jabetzan geratuko dira.

Helduentzako keramika tailerra antolatu du Egur arte tailerrak

Egur arte tailerrak helduentzako keramika eskolak antolatu ditu, eta urriaren 2an hasiko dute aurtengo ikasturtea. Irakasleak Pott keramika eskolako kideak izango dira, eta astean behin eskainiko dituzte eskolak, eguztenetan, 18:30etik 20:00etara. Klaseak Egur arte tailerrak merkatu plazako bigarren solairuan duen lokalean izango dira. Ikastaroaren prezioa hilean 20 eurokoa izango da, eta horrez gain, buztina erosi beharko du ikasle bakoitzak. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko ondorengo telefonora deitu daiteke: 666 557 538

“Euskaratik eleaniztasunera” izeneko infografia eta gaztelaniazko haren ordaina aurkeztu dituzte Debabarreneko udalek

Debabarreneko umeen artean eleaniztasuna sustatu nahi dute eskualdeko udalek eta, asmo horrekin hizkuntzen ikaskuntza prozesuaren eta erabileraren inguruko zalantzak eta kezak argitzeko lagungarri izan daitekeen materiala prestatu dute gurasoentzako. *Euskaratik eleaniztasunera* eta *Desde el euskera al plurilingüismo* izenburupean, bi infografia prestatu dituzte, bata euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz. Euskarazkoa eta gaztelaniazkoa ez dira erabat berdinak. Euskarazkoa euskaraz dakiten gurasoen kezka eta beharriaz begira prestatu dute, eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenen beharri begira. Infografia formatua sortu dute whatsapp bidez eta sare sozialen bidez zabaldu ahal izateko, baina material hau eskolatan ere erabiltzea nahi dute, irakasleek gurasoekin egiten dituzten bileretan bereziki.



Eguaztenean bukatu zen ‘Erroma Euskal Herrian’ hitzaldi zikloa

Luis Mari Zaldúa hizkuntzalariak eman zuen eguaztenean Erroma Euskal Herrian hitzaldi zikloko azken saioa. *Euskaldun-tze berantiarra, egia ala gezurra?* izeneko hitzaldia eman zuen, eta teoria honen bueltan dauden hainbat zalantza argitzeko giltzak eman zituen. Luis Mari Zaldúa (Urnieta, 1965) Euskal Filologian lizentziaduna eta Hizkuntzan eta Hizkuntzalartzan doktorea da. Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko onomastika batzordeko kidea ere bada. Hainbat liburu, artikulua eta mapa argitaratu ditu. Erroma Euskal Herrian hitzaldizikloa Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatatu du, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

Makina Erremintaren Museoa ETBko ‘Ahotsak’ saioan agertu da

Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa ETB1-eko *Ahotsak* saioko eszenatokietako bat izan zen asteleheneko saioan. Euskal Herriko abesbatzarik onena aurkitzen dihardute, eta hiru abesbatza lehiatzen dira atal bakoitzean. Asteleheneko saioan Eibarko Koro Gaztea izan zen lehiakideetako bat, eta eibartarrek Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa aukeratu zuten bi abesti grabatzeko. Julian Iantzik aurkeztu du *Ahotsak* saioa, eta Hibai Etxebarria musika adituaren laguntza izaten du finalera sailkatuko diren abesbatzak aukeratzeko. Eibartarrek ez zuten lortu hurrengo faserako sailkatzea, eta lehiaketatik kanpo geratu ziren. Eibarko koro gaztean Adriana Arrillaga elgoibartarrak ere parte hartzen du.



Eskubaloian aitzindariak Elgoibarren



Club Deportivo Elgoibarren babesean sortu zuten Elgoibarren eskubaloi taldea ere, Pelouse eskubaloia izenarekin. Joan den zapatuan, taldea sortu eta 40 urte geroago, elkarrekin bazkaltzeko elkartu ziren talde hartako gehienak Zubiondo elkartean. Iñaki Konde zen garai hartan C.D. Elgoibarko presidentea eta Jose Mari Oruesagastiren ekimenez sortu zuten eskubaloi taldea. Eskola kirolean eskubaloiko entrenatzaile ibilitakoa zen Oruesagasti eta Pelouse talderako batu zirenetako asko gatzetxotan bere jokalaririk izandakoak zituen. Taldea honako lagun hauek osatu zuten: Patxi Aranberri (entrenatzailea), Edelmiro Gonzalez (entrenatzaile /jokalaria) Vicente Rementeria, Mikel Jauregi, Juan Ramon Larrañaga, Esteban Larrañaga, Jesus Beraza Txuri, Francisco Javier Isasti, Jacinto Garcia, Julian Asensio, Jose Antonio Perez Bermeano, Cipriano Blanco, Pedro Barrenetxea, Salvador Barroetabeña Burgo, Karmelo Iriondo, Javi Arnedo, Jose Miguel Lejarazu, Rafa Rodriguez, Modesto Cid, Antonio Fernandez eta hilak dauden: Carlos Gonzalez *Veloci*, Pedro Jose Ansola *Mauxi* eta klubaren ordezkari lanak bete zituzten Luis Fernando Ayesta eta Javier Hidakok.


Gaur jokatuko dute Nahaste Borraste proba herrikoia

Bertan behera laga behar izan zuten Nahaste Borraste gaur, hilak 20, jokatuko dute. Kimetz elkarteak antolatzen duen probaren 35. ekitaldia izango da. 19:00etan hasiko da Kalegoen plazatik. Izena emateko, Kimetz elkartera joan behar da, 17:00etatik 18:30ak bitartean. (Doan da izenematea). Partaideek hiru probatan lehiatu beharko dute: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, ondoren 400 metro egingo dituzte antxixika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta (15 kilo emakumeek eta 16 eta 18 urte bitarteko gazteek, edo hala nahi duten artaide guztiek, antolatzaileei eskaera eginez gero), eta azkenik 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka.



Iban Muruak irabazi du Intza-Ttuturre kilometro bertikala eta hirugarren egin du Ainhoa Lendinezek

Iban Murua izan zen azkarrena III. Intza-Ttuturre Aralarako Kilometro bertikalean, joan den irailaren 15ean. Nafarroako zein Euskal Herriko bertikalen txapelketetarako puntuagarria zen proban 137 saltakari lehiatu ziren. Itsas mailatik 319 metro gora dagoen Araitz bailarako Intza herriko plazatik abiatu ziren parte hartzaileak eta Ttuturre (1.282 metro) mendiko gaineraino 3.850 metroko ibilbidea (963 metro positibo) osatu zuten. Muruak (36:45) ia minutu bateko aldea atera zion bigarren egin zuen Iñigo Alzolari (37:42). Emakumezkoetan Maite Etxezarreta azpeitiarra gailendu zen, bigarren urtez jarraian, 47 minutu eta 43 segundoko denbora eginda. Ainhoa Lendinezek hirugarren postua lortu zuen, 48 minutu eta 32 segundoko denbora eginda.



Aurten ez dute egingo Elgoibar Bi Erroberatan bizikleta irteera



Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak jakinarazi duenez, domekarako (irailak 22) iragarrita zegoen Elgoibar Bi Erroberatan bizikleta irteera aurtengoz bertan behera lagatzea erabaki dute. Ekitaldia ez antolatzeko arrazoi nagusia segurtasuna ezin dutela bermatu dela argitu dute. "Arrazoi nagusia segurtasuna da, ibilbideko segurtasuna bermatzea alde batetik, eta bestetik, legeak eskatzen dizkigun baimenak eta aseguru poliza izatea. Horregatik, kolaborazio bide bat zabaldu dugu Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolarekin, eta bide batez, Gipuzkoako Txirrindularien Federazioarekin ere bai, Elgoibar Bi Erroberatan ekin tzak hurrengo urtean legeak ezartzen dituen alderdi guztiak bete ahal izateko", adierazi dute. Izan ere, datorren urtean berriro antolatzea da euren asmoa. Kalamua Guraso Elkarteak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen du Elgoibar Bi Erroberatan. Iaz, 14. ekitaldian, 200 bat lagunek egin zuten Sallobentera joan-etorria bizikletaz.

Iruñea-Gares patinaje lasterketa bukatzea lortu du Asier Arriola mendaroarrak

Munduko patinaje lasterketa gogorretak da P2P delakoa. Iruñea eta Gares lotzen ditu 42 kilometroko ibilbide gora-beheratsuan: %8ko desnibelera iristen diren igoerekin, eta %12ko jaitsierekin. Domekan jokatu zuten probaren 11. ekitaldian 500 bat patinatzailek hartu zuten parte, eta horien artean zen Asier Arriola mendaroarra. Ordubete eta 45 minutuan osatu zituen 42 kilometroak eta 155. postuan sailkatu zen. Nolan Beddiar (1:06) frantziarra eta Maite Ancin (1:14) nafarra izan ziren azkarrenak. Bitxikeria modura, 96 kilometro orduko abiadura hartzera ailegatu zen patinatzaile bat ibilbideko jaitsieretako batean. Arriolak urte erdia eman du proba horretarako prestatzen eta patinatzen hasi zenetik begiz jota zuela dio. "P2Pa erreferente bat da patinatzaileen artean, daukan gogortasunagatik, eta munduko onenek hartzen dutelako parte", esan du.



Mintxeta Atletismo Taldeak korrikalari herrikoientzako atal bat sortu du

Federatu gabeko korrikalariak, lasterketa herrikoietan parte hartuzaleak eta hasiberriak batu nahi ditu Mintxeta Atletismo taldeak antxixikari herrikoientzako sortu duen atalean. Duela gutxi martxan jarri duten ELGO! Korrikalari Taldearekin elkarlanean gidatuko du proiektua. "Korrika egiteak dituen onura fisiko, psikologiko eta sozialak aprobetxatzea da korrikalari herrikoientzako atala sortzearen helburu nagusia", esan dute Mintxeta taldeko arduradunek. Konpetizioa atsegin dutenentzat, asfalto gainean zein mendian jokatzen diren lasterketetan parte hartzea aurreikusten dute, baina halako lasterketetan parte hartu nahi ez dutenentzako ere badago lekua taldean. "Kirolari hasiberriak erakartzea da gure xede nagusia, entrenatzeko lagun eta leku bat behar duten, eta euren esperientziak euren moduko beste lagun batzuekin partekatu gura dituzten saltakarietako taldea izango da". azaldu dute. Ildo berean, kirol honetan lehen pausuak ematen ari diren emakumeak, "bakarrik zein taldean aritzen direnak", erakarri nahi dituzte bereziki taldera.

Lagun taldean izena emateko epea zabalik

Elgoibarko Lagun Taldea Euskadi Fundazioa txirrindulari eskolak jakinarazi du zabalik dagoela 2019-2020 denboraldirako izenematea. 9 eta 18 urte bitarteko neska-mutiek eman dezakete izena. Honako telefono zenbakira dei eginda edo whatsapppe mezua idatzita eman dezakete izena: 665 878 615. Izen-abizenak, jaiotza urtea eta harremanetarako telefono zenbakia behar dituzte. Urriaren amaiera aldera batzar bat egingo dute gurasoekin, denboraldi berrirako xehetasun guztiak azaltzeko.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Gauz eta asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia eta gomendioak ditut. ☎ 688 842 791

Etxeak garbitzeko prest nago. ☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 434 004

Erizain laguntzaile lanetarako prest nago. Titulua daukat. Adinekoak ere zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 608 406 751

Ingeles eskolak ematen ditut, etxeko. Ingeles titulua daukat. ☎ 680 319 002

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. Erizain lanetan esperientzia daukat. ☎ 633 496 455

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 612 455 854

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Zaintza titulua eta elikagaiak manipulatzenko titulua ditut. ☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 611 306 391

Adinekoak zainduko nituzke. Gauz ere bai, ospitalean zein etxean. Titulua daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke, goizez. Asteburuetan eta gauetan lan egiteko prest nago. ☎ 632 229 972

Adinekoak edo gaixok zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia handia daukat. ☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan, gauz, edo etxeko langile moduan ere bai. Malgutasun osoa. ☎ 631 980 531

Adinekoak zainduko nituzke, gauz edo etxeko langile moduan. ☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan nago eta esperientzia handia daukat. ☎ 632 344 327

Etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 632 642 320

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 602 850 826

Adinekoak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 786 847

Adinekoak zainduko nituzke, goizez. Asteburuetan eta gauetan lan egiteko prest nago. ☎ 631 736 770

LHko eta DBHko eskolak eta Batxilergoko ingeles eskolak ematen ditut. ☎ 630 055 077 / 666 667 183

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. ☎ 632 630 483

Eskaerak
Jatetxe baterako zerbitzaria behar da. ☎ 659 539 861

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Bidali curriculum inmabima@gmail.com helbidera.

ETXEBIZITZAK.....
Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo inguruko herriren batean. ☎ 683 415 222 (Maria)

Elgoibarko bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Igogailua beharrezkoa, eta ahal dela, erdigunean. ☎ 617 562 086

Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Lanean ari gara. ☎ 622 162 798

BESTELAKOAK.....
Irailaren 11n zilarrezko lepoko katea galdu nuen Olaizaga kirolegegi inguruan. Bale buztan zintzilikarioa dauka eta atzean lizar jartzen du. ☎ 615 624 599

Haur jaioberri batentzako kapotadun aulkia eta sehaska behar ditugu. ☎ 616 691 990

Familia batek Elgoibartik gertu dagoen lur sail txiki bat erosi edo alokatu nahiko luke. ☎ 669 339 529

KILOMETROAK 2019 ZARAUTZ Urriak 6, igandea
"Ni, hi, hura, ikastola mundura!"
Autobusa antolatu dugu Gipuzkoako ikastolen aldeko jaietan parte hartzeko. Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. **Azken eguna: urriak 3.**

Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia)
Itzulera: 20:00 Zarautzik
Prezioa: 8 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7)

Autolantzaileak:  Baserriak: 

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Enfoque Único Administraciones Locales Euzkoak



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Lokal batean kutxatila bat dago baldosez estalia, itxura hobetzeko. Baina jabeak ez du kutxatila estali. Urteak pasatu dira eta lokalak garbitzeko premia dauka. Gainerako jabeek diote ez daudela garbitzearen kontra, baina uste dute baldosak apurtzen badira, lokalaren jabeak konpondu beharko dituela. Jakin nahi nuke konpontze hori nori dagokion.

15-9-86 Ordenantzaren bidez onartutako herrietako saneamendu-hodien preskripzio tekniko orokorraren pleguak dio derrigorrezkoa dela erregistorako putzuak edukitzea, azterketa eta garbiketak egin ahal izateko sarbidearekin. Gerta daiteke lokal batek kutxatila bat edukitzea urak ateratzeko estrukturarara sartzeko. Horrelakoetan ezin dira putzu edo kutxatila horretarako sarbidea oztopatuko duten obrak egin. Hau da, elementu komun honetarako sarbideak ezin dira kendu. Jabeak komunitateko instalazio orokorrak errespetatu behar ditu, onartu egin behar ditu bere etxe barruan eraikinak eskatzen dituen berrikuntzak eta, baimendu egin behar du bere lokalerako sarbidea. Komunitateak eskatu ahal dio lokalaren jabeari, errentan dagoenari edo erabiltzaileari kutxatila hori erabilgarri lagatzeko.

GOMENDIOA: Lokalaren jabea da elementu komun horren arduraduna, eta bere gain hartu behar du kutxatila erabilgarri jartzeko obraren kostua. Are gehiago, kutxatila ixtearen arazoak tamaina handiko obra eta gainkostua eskatzen baditu, berak erantzun beharko du.

ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




ZORIONAK



Irailaren 25ean 6 urte handi beteko dituzu. Zorionak, guapa. Patxo handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Hai-zea!** Gaur 12 urte! Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, mutil handi! 13 urte! Zorionak, **Mar-kel**, familiakoen eta bereziki, Endika eta Danelen partez.



Zorionak, **Asier!** Iritsi da zure eguna! Gozatu zure 10. urtebetetzea. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen**, igandean 2 urtetxo egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Sara**, irailaren 18an 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Paul!** Gaur 2 urte! Patxo potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.




Zorionak, **Aratz!** 5 urtetxo! Patxo handi bat etxeko guztion eta bereziki, Jare, Ibai eta Lierren partez. Zorionak, txapeldun!



Zorionak, **Iker**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Etxeko denon partez.



Garagartzan egun handia dugu bihar. Zorionak, **Luken**, maite zaitugunon partez. Gararoken ospatuko dugu!




Zorionak, **Mar-kel!** Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxu potolo bat denon partez!

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

IKASGO ACADEMY AURREMATRIKULA EPEA
ZABALIK
 Basarte 13, behea - Elgoibar
akadem/ae@elgoibar@gmail.com
 2019-2020

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

667 261 248
 (Leire)



MEKANOSA

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ZERAMIKA HELDUENTZAT
POTT KERAMIKAKIN ASTEAZKINETAN 18:30-20:00
 EGUR MERKATU PLAZAKO 1. SOILARUAN 666 557 538

LAGUNAK colchonera textil hogar

- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioia
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

20 BARIKUA

18:30 Zirkua. Mintxetako aparkalekuan.

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkar-teak antolatuta, Kalegoen plazan.

21:30 Bideo Foruma: *Vuelta a casa de mi madre*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Sotoko Hotsak. Crudo Pimento taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

21 ZAPATUA

11:00 Frankismo garaian preso egondakoei omenaldia. Elgoibar 1936 taldeak antolatuta, Olaso hilerriko Kolunbarioan.

16:30 Gararock musika festa, Mendaroko Garagartzako plazan. Kontzertuak, food truck-ak eta umeentzako tailerrak egongo dira. Ondorengo taldeen kontzertuak izango dira: Bakelite, La niña hilo, Kokein, Villapellejos, Magnetico grupo robot, La Basu eta Joseba Irazoki eta lagunak

17:00 eta 19:00 Zirkua. Mintxetako aparkalekuan.

22 DOMEKA

11:00 Zirardamendi-Aiastia fronte-leerroan hildako gudariei omenaldia. Zirardamendin.

12:00 eta 17:00 Zirkua. Mintxetako aparkalekuan.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua: 'Elgoibar Europako Kirolaren Herria 2019'. Zuzendaria: Gorka Mujika. Herriko Antzokian.

1. *The olimpic spirit*. (John Williams).
2. *Fanfare pour saxofone*. (J. Demersseman). Bakarlaria: Antonio Melo, Saxofoi-jotzaile gazteen 2018ko lehiaketako irabazlea.
3. *Lokatza*. (Alfredo Glez. Chirlaque).
4. *Champions League* (Haendel- Britten).
5. *Atlanta 96*. (W. Laseroms).
6. *We are the champions*. (F. Mercury).
7. *Oimpic fanfare and them*. (John Williams).

24 MARTITZENA

14:00 Merkatarientzako formakuntza: *Emango al dugu bezeroak espero duena?*. Udaleko Merkataritza Sailak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

18:00 Literatura tailerra: *Habla memoria habla, Nabokov*. Consuelo Carrerek gidatuko du saioa, Gotzon Garate Udal liburutegian.

19:00 Bilera irekia. Ahal Dugu-Podemos taldeak bilera egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan

26 EGUENA

19:00 Ixiltasunaren Eskolako meditazio saioa. Kultur Etxeko sotoan.

Zinea (Herriko Antzokian) Iñaki Agirre Zinemaldia

'Cafarnaúm' 20 barikua: 21:30	'Un asunto de familia' 21 zapatua: 19:00 / 22:15 22 domeka: 19:00 23 astelehena: 21:30	'Visión' 26 eguena: 21:30 27 barikua: 21:30
----------------------------------	---	---

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
20 BARIKUA	21 ZAPATUA	22 DOMEKA	23 ASTELEHENA	24 MARTITZENA	25 EGUAZTENA	26 EGUENA	27 BARIKUA
Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez Garitaonandia	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



Jose Etxaniz Iriondo

2019ko irailaren 9an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Ez agurrik, ez adiorik: gero arte bakarrik.



Maria Angeles Gorostiola Goicoechea

2019ko irailaren 14an hil zen, 70 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Alberto Solas Suarez

2019ko irailaren 15ean hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Isabel Zabala Arriola

2019ko irailaren 16an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




I. URTEURRENA

Maria Isabel Iturbe Cilleruelo

"Bristol"

2018ko irailaren 18an hil zen, 66 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 21ean,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde z aurretik eskerrak.





Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



"Euskal Herrian, fanfarrea edo txaranga haize eta perkusiozko musika tresnez osaturiko musika banda bat da, kalejirak eginez kaleetan jaiak alaitzeko jotzen duena. Fanfarreko musikari kopurua 6-16 bitartekoa izaten da. Euskal Herriko jai herrikoietan ohiko osagaia da ...".

Hori dio Wikipediak Txaranga hitzak zer esan nahi duen galdetzen diogunean. Elgoibarren eta elgoibartarrontzat, ordea, txaranga Mauxitxa da; txaranga jaien hasiera da, txaranga poza eta alaitasuna da. Haize eta perkusiozko musika tresnez osaturiko musika banda da, bai. Kalejirak eginez kaleetan jaiak alaitzeko jotzen du, hori ere bai. Musikari kopurua 6 eta 16 lagun bitartekoa izan ohi da. 1970ean Mauxitxa zazpi lagunek osatu zuten estrainekoz, ehun bat musikari pasatu dira harrazkero bertatik, eta gaur egun 26 daude txarangako lantaldean, 15 bat aktibo. Elgoibarko jai herrikoietan ohiko osagari ez, are gehiago, osagai garrantzitsuena dela esango nuke; nirekin ados egongo zarete asko eta asko.

Baina, Mauxitxa hori guztia baino askoz gehiago da. Mauxitxa lagunei lepotik heldu eta saltoka hastea da, ondo pasatzea da, une batez bada ere arazoak eta buruko minak ahaztea da. Mauxitxa berezia da; herri guztia biltzen da txarangaren bueltan, haur eta heldu, belaunaldi guztiak elkarrekin.

Mende erdia bete du aruten, hala ere, gazte izaten jarraitzen du itxuraz eta izpirituz.

Urteurreneko ospakizunak jaietako txupinazoa bota zutenean hasi zituzten, ospakizun handia Txiki Egunean egin zuten 50 Txiki Elkarrekin lelopean; 75 partaideko Mauxitxa erraldoiak erraldoi bilakatu zuen herria Txiki egunez. Haundixa izan zen. Herri osoa txarangarekin bat eginda. Urte guztian zehar ekintza ugari antolatatu dute, 2020ko uztaillean Soraluzen bukatuko dituzte ospakizunak, duela 50 urte lehenengo aldiz jo zuten toki berean.

Eskerrik asko, Mauxitxa! Zorionak eta urte askotarako! Bejondeizuela!

Jarraitu jaiak musikaz betetzen eta kaleak txaranga soinu dantzagarriekin alaitzen. Eta bereziki segi urte askuan, Loles eta Pakitorekin, elgoibartarrontzat Txixixak Haundi egitten!

"Elgoibarren eta elgoibartarrontzat, ordea, txaranga Mauxitxa da"



I. URTEURRENA
Julian Juaristi Soraluze
"Artaso"

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

2018ko irailaren 19an hil zen, 66 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
zapatuan, irailaren 21ean, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Antonio Gurrutxaga Askasibar

2018ko irailaren 23an hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
zapatuan, irailaren 21ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Gizon jatorra eta nekazina izan zara azken unera arte;
betiko izango zaitugu gure bihotzean.
Maite zaitugu.***



VI. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela.
Haren oroimenez VI. urteurreneko meza izango da, domekan,
irailaren 22an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean,
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



TERTULIAK programa

euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko.
Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.
Animatu eta eman izena urriaren 11 baino lehen!

Izena emateko eta informazio gehiagorako:

Elgoibar Izarra (943 741 626)
AEK euskaltegia (607 601 423)
Udal Euskaltegia (943 742 731)